

Euskarazko galderen analisi berri baterantz

Towards a New Analysis of Questions in Basque

SERGIO MONFORTE

sergio.monforte@ehu.eus
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Recepción: marzo de 2024. Aceptación: mayo de 2024

Laburpena: Gramatika-lanetan galderek arreta berezia jaso dute, hizkuntzarik hizkuntza parametroak eta mugimenduak edo mugimendurik eza aztertze bidea eman dutelako. Euskalaritzan ere ikertu da galderen sintaxia; hala ere, galdera motei batera begiratzuz gero, desadostasunak geratzen dira agerian analisisien artean. Artikulu honen helburua da galderei analisi bateratua eskaintzea. Horretarako, datu tipologikoetan ez ezik, gramatika sortzaileak eskaintzen dituen baliabideetan ere oinarrituko naiz, eta proposatuko dut perpaus mota Indar eta Jokatasun buruen artean ezartzen dela, baina galdera mota, ordea, galderetan zehazteko eskatzen den aldagaiaren [nz] edo [pol] tasunek ezartzen dutela.

Gako-hitzak: galdera, eratorbidea, sintaxia, nz-galdera, polaritatezko galdera, euskara

Abstract: In the literature, questions have received attention because they allow analyzing parameters and movements or the lack of movement typologically. The syntax of questions has also been investigated in Basque linguistics, although if one looks at the different types of questions, there are discrepancies between the analyses. The aim of this article is to provide a coherent and unique analysis of questions. For this purpose, I will use not only on typological data, but also mechanisms developed within the Generative Grammar, and I will propose that the sentence type is established between the nuclei of Force and Finite, but the question type is determined by the properties [wh] or [pol] of the variable under the interrogative force.

Keywords: questions, derivation, syntax, wh-questions, polar questions, Basque

I.- SARRERA: GALDERA MOTAK

Jakina da euskarak SOA hurrenkera neutroa duela (de Rijk 1969; Villasante 1980; Elordieta 2001; Hualde eta Ortiz de Urbina 2003; Pastor 2019, besteak beste), baina hurrenkera hori ez dela zurruna eta bestelako ordenak gauza daitezkeela, informazio-egiturarekin lotutakoak hain zuzen. Esaterako, hurrengo adibideei begiratuz gero, ikus daiteke polaritatezko eta *nz*-galderetan A1 eta A2 efektuak daudela (Ortiz de Urbina 1989; 1994; 1995)¹:

- (1) Zuk artikulu hau irakurriko duzu.
- (2) [Irakurriko duzu_i] zuk artikulu hau t_i?
- (3) [Zer_i] [irakurriko duzu_j] zuk t_i t_j?

Adibide horiek agerian uzten dutenez, euskarazko galderak, prosodiaz gain, mugida sintaktikoaren bitartez eraten dira: aditz jokatua aurreratzen da, baita *nz*-hitza ere (cf. Duguine + Irurtzun 2014). Beraz, alde horretatik, euskarak inguruko hizkuntza gehienek legez jokutzen du, alemanak, gaztelaniak edo italierak, besteak beste. Esate baterako, alemanezko adibideak hona:

- (4) Du [hast_i] diesen Artikel gelesen t_i.
- (5) [Hast_i] du t_i diesen Artikel gelesen t_i?
- (6) [Was_i] [hast_j] du t_i gelesen t_j?

Bestalde, mendeko perpausetan bi jokabide ikus daitezke: *nz*-galderetan *nz*-hitza eta aditz multzoa beti aurreratuta agertzen dira (= 7); izan ere, *nz*-hitza aurreratuta eta aditza *in situ* agertuz gero, ez-gramatikala da euskara estandarrean eta Hego Euskal Herriko hizkeretan (= 8) (Monforte 2022). Bestalde, polaritatezko galderetan aditz multzoa ez da aurreratzen; aitzitik, perpausaren amaieran azaltzen da (= 9):

- (7) Ea [nora_i] [joan diren_j] haurrak [nora_i] [joan diren_j] galdetu dute.
- (8) *Ea nora haurrak [nora_i] joan diren galdetu dute.
- (9) Ea haurrak Uztaritzera joan diren galdetu dute.

Hala ere, hirugarren testuinguru bat dago, *nz*-hitza ez den osagai bat fokalizatuta duten polaritatezko galderena, alegia. Kasu horretan fokua aurreratzen da eta, galdera zuzenetan bezala, aditza ere bai.

¹ *Nz*-galderetan eta egitura fokaletan euskarak erakusten duen jokabidea ez ezik, aditz jokatua lehenengo posizioan agertzeko murriztapena ere hartu dira ebidentziatzat efektu hori aldarrikatzeko. Hala ere, euskara, hizkuntza germanikoekin alderatuta, malguagoa da efektu horri dagokionez; izan ere, euskararen antzera jokutzen duten beste hizkuntza batzuetan A2 efektuaren ordez, Denb2 efektua deritzote (Elordieta 2001; Kaiser eta Scholze 2009; Elordieta eta Haddican 2018). Beraz, euskararako efektu bera proposa litekeelakoan nago.

(10) a. Ea [UZTARITZERA]_i [joan diren]_j haurrak [UZTARITZERA]_i [joan diren]_j galdetu dute.

b. *Ea UZTARITZERA haurrak [UZTARITZERA]_i joan diren galdetu dute.

Horrelako zehar galderek eta mendeko *nz*-galderek jokabide bera erakusten dute, testuinguru zuzenetan bezala.

Jarraian, euskalaritzan galderak sintaktikoki aztertzeke analisiak berrikusiko ditut, alde onak nahiz txarrak agerian utzita.

II.- GALDEREN ERATORBIDEA EUSKARAZ: AURREKARIAK

Atal honetan galderak aztertzeke erabili ohi den analisiari ekingo diot, aurrena galdera zuzenen azterbideari eta, ondoren, zehar galderei.

2.1.- Galdera zuzenen eratorbidez

Gramatika sortzailean autore gehienak (Laka eta Uriagereka 1987; Ortiz de Urbina 1989; Albizu 1992; Artiagoitia 1994, besteak beste) (2) eta (3) adibideetan ezkererako mugida dagoelako ideian bat datozela diosku Artiagoitiak (2000)²; kokaguneari dagokionez, Konplementatzaile Sintagma identifikatu izan da mugida horren helmugatzat (Ortiz de Urbina 1989; 1999b; Artiagoitia 2000; Irurtzun 2007). Mugidaren eragilea *nz*-galderen kasuan *nz*-hitzak duen [nz] tasuna dela proposatzen du Ortiz de Urbinak (1992; 1999a; 1999b; 2008); berau [espez, KonpS] gunera mugitzen da, eta tasun hori erkatzeke asmoz [A-Denb] multzoa mugiarazten du.

(11) $[_{KonpS} [_{DenbS} [_{Denb'} [_{aS} \text{zuk non}_{\{nz\}} \text{afalduko}]] \text{duzu}_{\{nz\}}]]] > [_{KonpS} \text{non}_{\{nz\}} [_{Konp'} [_{Konp} \text{afalduko}]] \text{duzu}_{\{nz\}}]]] > [_{KonpS} \text{afalduko} \text{duzu}_{\{nz\}}] [_{DenbS} [_{Denb'} [_{aS} \text{zuk non}_{\{nz\}} \text{afalduko}]] \text{duzu}_{\{nz\}}]]]$

Polaritatezko galderei dagokienez, Ortiz de Urbinak (1995) dio kasu honetan ere osagai bik [nz] tasuna dutela: batetik, [espez, KonpS] gunean kokatuta dagoen operatzaile batek eta, bestetik, Denb buruak. Tasunak harreman hurbilean erkatu behar dituztenez, operatzaileak [A-Denb] osagaia Konp burura bereganatzen du.

(12) $[_{KonpS} \text{Operatzailea}_{\{nz\}} [_{Konp'} [_{Konp} [_{DenbS} [_{Denb'} [_{aS} \text{zuk Bilbon afalduko}]] \text{duzu}_{\{nz\}}]]]]] > [_{KonpS} \text{Operatzailea}_{\{nz\}} [_{Konp'} [_{Konp} \text{afalduko}]] \text{duzu}_{\{nz\}}]]] > [_{DenbS} [_{Denb'} [_{aS} \text{zuk Bilbon afalduko}]] \text{duzu}_{\{nz\}}]]]$


Beraz, bai *nz*-galderei, bai polaritatezko galderei dagokienez, eratorbide antzekoa dugu: [espez, KonpS] gunean operatzaile bat dago (*nz*-galderetan hara

² Richards-ek (2016: 99) bestelako analisia proposatzen du: prosodiaren bitartez *nz*-hitzaren eta aditzaren ondokotasuna lortzen dela aldarrikatzen du.

mugitu baita *nz*-hitza eta bai-ezko galderetan bertan kokatzen baita operatzailea) eta, gainera, berorrek Denb buruarekin tasunak erkatu behar ditu harreman hurbilean; hori dela eta, aditza Konp burura igotzen da.

Ondorengo lan batean, Ortiz de Urbinak (1999b), Rizzik Konplementatzaile Sintagmaren gainean proposatutako hipotesia onartuta, lehen Konplementatzaile Sintagman kokatzen zituen *nz*-hitzak, fokuak eta polaritatezko galderetako operatzailea konplementatzaile zabalduaren sintagma berrietan banatzen ditu: lehenengo biak Foku Sintagman eta azkena Indar Sintagman hain zuzen. Honela egituratzen du ezker periferia osagai horiei dagokienez:

(13)



Ortiz de Urbinak (1999a; 1999b) egitura fokudunez eta polaritatezko galderen inguruan plazaratutako azterbideak aintzat hartuta, ematen du galdera horiek eratorzeko modu bi daudela: a) perpausaren osagai bat fokua denean, aditza Fok burura mugitzen da eta han [fok] tasuna erkatzen dute fokuak eta aditzak; eta b) fokurik gabeko polaritatezko galderen kasuan [espez, IndarS] gunean dagoen operatzaileak Indar burura erakartzen du Denb burua barne duen aditza, biek duten [nz] tasuna erkatzeko asmoz. Gauzak horrela, osagai bat fokalizatuta duen polaritatezko galdera batean aditza FokS-ra mugitu ondoren, Indar burura igo beharko litzateke. Hala ere, ez dago horren aldeko ebidentziarik, horrelako galderetan aditza fokua ostean azaltzen baita.

(14) [BILBON_i] [afalduko duzu_j] gaur zuk t_i t_j?

Arazo horri 3.1. azpiatalean ekin baino lehen, mendeko testuinguruetan agertzen diren *nz*-galderen eta galdera absolutuen analisia aztertuko dut jarraian.

2.2.- Mendeko galderen eratorpenaz

Testuinguru zuzenen azterbidea ikusita, jo dezagun orain zehar galderez esandakoa laburbiltzera. Egia esan, analisi sintaktikoari begira, antzeko eratorbidea proposa liteke: Rizziren (1997) proposamena egokituta, [*nz*] edo [fok] tasuna duen osagaia [espez, FokS] gunera mugitzen da eta delako tasunak erkatzeko [A-Denb] multzoa Fok burura aurreratzen da; esaterako:

(15) [_{IndarS} [_{Indar'} [_{Indar} ea] [_{FokS} [_{Fok'} [_{Fok}] [_{JokS} [_{DenbS} [_{AS} haurrak {nora/ UZTARITZERA} joan] [_{Denb} dira]] [_{Jok} -(e)n]]]]]] > [_{IndarS} [_{Indar'} [_{Indar} ea] [_{FokS} {nora /UZTARITZERA} [_{Fok'} [_{Fok} joan diren] [_{JokS} [_{DenbS} [_{AS} haurrak {nora/ UZTARITZERA} joan] [_{Denb} dira-]] [_{Jok} -(e)n]]]]]]]

Fokurik gabeko polaritatezko galderetan, ordea, ez da mugidarik sumatzen; ondorioz, Ortiz de Urbinak (1995; 1999b; 2008) proposatzen du horrelako galderetan [espez, IndarS] gunean dagoen operatzaileak perpaus nagusiko aditzarekin erkatzen duela [*nz*] tasuna. Ondorioz, galdera zuzenetan ez bezala, ez da beharrezkoa aditza Indar burura mugitzea.

(16) [_{AS} [_{IndarS} Operatzailea_[nz] [_{Indar'} [_{Indar} ea] [_{JokS} [_{DenbS} [_{AS} haurrak Uztaritzera joan] [_{Denb} dira]] [_{Jok} -(e)n]]]]] [_A galdetu_[nz]]] > [_{AS} [_{IndarS} Operatzailea_[nz] [_{Indar'} [_{Indar} ea] [_{JokS} [_{DenbS} [_{AS} haurrak Uztaritzera joan] [_{Denb} dira-]]] [_{Jok} joan diren]]]]] [_A galdetu_[nz]]]]

Atal honetan galdera zuzen eta zehar galderen analisia berrikusi dut Ortiz de Urbinaren (1989; 1992; 1994; 1995; 1999a; 1999b; 2008) ildotik; hala ere, gabezia bi sumatzen ditut: a) fokurik gabeko galdera absolutuetan operatzaileak markatzen du galdera dela baina *nz*-galderetan, aldiz, ez du aipatzen horrela markatzen duenik; eta b) fokua duten polaritatezko galderetan operatzailearen eta aditzaren arteko ondokotasuna ez da gauzitzen, lehenengoa IndarS-n baitago eta bigarrena FokS-n. Ondorioz, eratorbide bi daude mota bereko galderetarako. Hurrengo atalean, gabezia horiek gogoan, minimalismoaren barruan galderen analisi bat proposatuko dut.

III.- GALDEREN ANALISI BERRI BATERANTZ

3.1.- Galdera zuzenak ikuspegi gaurkotutik

Azpiatal honetan euskarazko *nz*-galderen eta polaritatezkoen analisia berrikusi ondoren, azterketa berri bat proposatuko dut. Ezer baino lehen, aldarrikatzen dut galdera mota bietan [Q] tasuna duen burua Konplementatzaile

Sintagman dagoela. Bestalde, Rizziren (1997) ildotik, KonpS fokua edo topikoa daudenean bakarrik zabaltzen delako ideia onartzen dut; gogora dezagun Rizzik proposatutako sintagmak zelan artikulatzen dituen Ortiz de Urbinak (1999b; 2008) euskarari begira:

(17) [_{IndarS} Indar [_{TopS} Top [_{FokS} Fok [_{JokS} [_{DenbS}] Jok]]]]

KonpS hedatuta agertuz gero, [Q] tasuna duen osagai bat Jokatusan buruan azaltzen da (Monforte 2015), *-(e)n* edo *-(e)la* menderagailuak azaltzen diren moduan (Ortiz de Urbina 1999b; 2008). Horrez gain, Indar buruan Jokatusan buruarekin lotura duen buru isil bat dagoela proposatuko dut (*cf.* Artiagoitia eta Elordieta 2016). Buru honek perpaus mota (deklaratioa, galdera, agintera...) markatzea du helburu, eta Jok buruarekin balioa komunztatzen du: galdera bada, Ø agertzen da Jok buruan; harridurazko balioa badu, *-(e)n* edo *-(e)la* azaltzen dira Jokatusan buruan. Ikus ditzagun hurrengo adibideak:

(18) GOIZEAN joan haiz?

[_{IndarS} [_{Indar} Ø [_Q]] [_{FokS} *goizean*_[fok] [_{Fok'} [_{Fok} *joan haiz*]] [_{JokS} [_{DenbS} [_{AS} GOIZEAN_[fok] joan_[Denb] haiz]] [_{Jok} Ø_[Q]]]]]]

(19) ZEIN GOIZ joan haizen!

[_{IndarS} [_{Indar} Ø [_{Harr}]] [_{FokS} *zein goiz*_[fok] [_{Fok'} [_{Fok} *joan haizen*]] [_{JokS} [_{DenbS} [_{AS} ZEIN GOIZ_[fok] joan_[Denb] haiz]] [_{Jok} -en_[Harr]]]]]]

Indar Sintagmaren eta Jokatusan Sintagmaren arteko komunztadura dagoelako ebidentzia gaskoian topatzen dugu. Hizkuntza honetan perpaus nagusi deklaratioetan *que* partikula agertu behar da.

(20) (*Que) parli gascon.
P mintzatu gaskoia
'Gaskoiz hitz egiten dut.' (Morin 2013: 139)

Morinek (2013) adierazten duen bezala, *que* ez esateak ez-gramatikaltasuna dakar. Gainera, topikoa egonez gero, berau *que* horren aurretik azaldu behar da. Are gehiago, *que* eta aditz jokatua beti elkarren ondoan izan behar dira.

(21) Maria que parla gascon
Maria P mintzatu gaskoia
'Mariak, gaskoiz hitz egiten du.' (Morin 2013: 139)

Jokabide bera antzematen da galderazko eta harridurazko partikuletan, *e* eta *be* hurrenez hurren.

(22) Maria *(e) parla gascon?
Maria P mintzatu gaskoia
'Mariak, hitz egiten du gaskoiz?' (Morin 2013: 140)

- (23) Maria *(be) canta plan!
 Maria P abestu ondo
 ‘Mariak, zein ondo abesten duen!’ (ibid.)

Ebidentzia honetan oinarrিতa, Morinek (2013) aldarrikatzen du *que*, *e* eta *be* partikulek Jokatusun burua okupatzen dutela. Mendeko perpausetako datuek ere egiten ei dute kokagune honen alde. Testuinguru hauetan, topikorik egon ezean, ezin dira partikula³ horiek agertu: menderagailua bakarrik azalduko da.

- (24) Que convenem [que (*que) m’apèras].
 P adostu MEND P ISG.AK.deitu
 ‘Deituko didazula adosten dugu.’ (Morin 2013: 142)

- (25) Que ‘m demandi [se (*e) drom lo gat]
 MEND ISG.DAT galdetu MEND P lo.egin ART katu
 ‘Katua lotan ote dagoen galdetzen diot neure buruari.’ (ibid.)

Hala ere, topikoa agertuz gero, menderagailuak eta partikulak, biak, nahitaezkoak ei dira, lehenengoak topikoaren aurretik eta bigarrenak horren ondoren⁴.

- (26) Que soi segur que las arhagas *(que) son maduras
 P nago ziur MEND ART marrubi P izan helduak
 ‘Marrubiak helduak direlako ziur nago.’ (Morin 2013: 142)

- (27) Que ‘m demandi [se lo gat *(e) drom].
 P ISG.DAT galdetu MEND ART katu P lo.egin
 ‘Katua ea lotan ote dagoen galdetzen diot neure buruari.’ (ibid.)

Topikoen, partikulen eta konplementatzaileen arteko jokabidea kontuan hartuta, Morinek (2013) honako banaketa proposatzen du:

- (28) [_{IndarS} que... [_{GaldS} se [_{TopS} [_{JokS} [que/ el be] [_{DenbS}]]]]]

Topikorik ez badago, orduan, Jokatusun burua Indar burura mugitzen dela dio Morinek (2013), [indar*] tasuna erkatzeko, helburu horretarako bertan osagai bat sortu beharrea.

- (29) [_{IndarS} Ø [_{uIndar} [_{JokS} que [_{Indar} [_{DenbS}]]]]] > [_{IndarS} que [_{Indar}]_i [_{JokS} t_i [_{DenbS}]]]]

³ Termino hori darabil Morinek (2013) *que*, *e* eta *be* osagaiak adierazteko.

⁴ Antzeko banaketa erakusten du piedmonterak (Poletto 2000: 61): mendeko testuinguruek menderagailu bi eduki ditzakete eta bien artean azaltzen diren osagaiak fokuarekin edo topikoarekin daude lotuta.

Topikoa egonez gero, Jokatutasun burua ezin da [*u*Indar] tasuna zilegizatzeko Indar burura igo Top buruak mugida oztopatzen baitu, eta, ondorioz, IndarS-n burua morfologikoki gauzatzen da.

$$(54) \left[\begin{array}{c} \text{IndarS } \emptyset_{[u\text{Indar}]} \text{ [Top] } \text{JokS } que_{[\text{Indar}]} \text{ [DenbS]} \end{array} \right] > \left[\begin{array}{c} \text{IndarS } que_{[\text{Indar}]} \emptyset_{[u\text{Indar}]} \\ \text{TopS [Top] } \text{JokS } que_{[\text{Indar}]} \text{ [DenbS]} \end{array} \right]$$

Gaskoiak eskaintzen dituen datuak eta Morinen (2013) banaketa sintaktikoa balagarriak iruditzen zaizkit eta neure gain hartuko ditut, kasurako: KonpS zabaldua dagoenean, IndarS eta JokS gauzatzen direla eta bien artean nolabaiteko komunztadura dagoelako ideiaz baliatuko naiz.

Halaber, Konplementatzaile Sintagma, fokua edo topikoa egonez gero, IndarS eta JokS morfonologikoki bereizita gauzatzen direlako ebidentzia galesez eta japonieraz topatzen dugu (Rizzi 2004; Roberts 2004; Adger 2007; Kuwabara 2013):

$$(30) \text{Dywedais i } \textit{mai} \text{ [‘r dynion] a fuasai’n gwerthu’r ci.}$$

esan ni MEND ART gizonak P ASP saldu-ART txakur
 ‘Esan nuen gizonak salduko zuela txakurra.’ (Roberts 2004: 301-302)

$$(31) \text{a. Kono tokei-wa PRO Pari-de katta no (desu) (ka)}$$

hau erloju-TOP Paris-IN erosia MEND FP Q
 ‘Erosi zenuen erloju hau Parisen?’

$$\text{b. } \left[\begin{array}{c} \text{IndarS [TopS Kono tokei-wa [FokS [JokS [DenbS PRO Pari-de katta] [Jok no]] [Fok} \\ \text{(desu)] [Top] [Indar (ka)]} \end{array} \right] \text{ (Kuwabara 2013: 100)}$$

Beraz, tipologikoki frogatuta geratzen da Indar eta Jokatutasun buru biak gauzatuta azal daitezkeela eta euren arteko komunztadura eta koherentzia gertatzen dela. Izan ere, gaskoiz *se* eta *que* ez dira bateragarriak, perpaus mota desberdineko osagaiak dira eta.

$$(32) \text{Que ‘m demandi [se lo gat e / *que drom].}$$

P ISG.DAT galdetu MEND ART katu P *P lo.egin
 ‘Katua ea lotan ote dagoen galdetzen diot neure buruari.’ (Morin 2013: 142)

Gatozen euskarazko galderen analisiaren harira. Arestian esan dudanez, [Q] tasuna duen osagai bat Jokatutasun buruan kokatzen da. Dena den, balio hori Indar Sintagmatik dator, gaskoizko eta galesezko datuak aintzat hartuta, Jokatutasun Sintagma eta Indar Sintagmak lotuta baitaude. Hots, Indar buruak perpaus mota ezartzen du eta, Jokatutasun Sintagmaren [perpausmota:_] tasun hori balioztatu ondoren, bertan perpaus motari dagokion burua gauzatzen da, \emptyset , $-(e)la$ edo $-(e)n$; kasu honetan galderak jorratzen ditudanez, \emptyset burua perpaus nagusietan eta $-(e)n$ zehar galderetan agertzen dira.

$$(33) \left[\begin{array}{c} \text{IndarS } \emptyset_{[Q]} \text{ [JokS [DenbS] } \emptyset_{[perpausmota: _]} \end{array} \right] > \left[\begin{array}{c} \text{IndarS } \emptyset_{[Q]} \text{ [JokS [DenbS] } \emptyset_{[perpausmota:} \\ \text{Q]} \end{array} \right]$$

Ondoren, Jok buruan sortu berri den osagaiak [Denb*] tasuna duela proposatzen dut, menderagailuek aditz jokatuekin bat egiteko beharrean oinarrituta. Tasun hori sendoa denez, harreman lokalean erkatu behar da, Denb buruaren Jok bururako mugida eraginda (Arregi eta Nevins 2012).

$$(34) \left[\begin{array}{c} \text{IndarS } \emptyset_{[Q]} \left[\begin{array}{c} \text{JokS } \left[\begin{array}{c} \text{DenbS } \left[\begin{array}{c} \text{aS} \left[\text{Denb}_{[\text{Denb}]} \right] \right] \right] \right] \right] \right] \emptyset_{[Q, \text{Denb}^*]} \end{array} \right] \right] > \left[\begin{array}{c} \text{IndarS } \emptyset_{[Q]} \left[\begin{array}{c} \text{JokS } \left[\begin{array}{c} \text{DenbS } \left[\begin{array}{c} \text{aS} \left[\text{Denb}_{[\text{Denb}]} \right] \right] \right] \right] \right] \right] \text{Denb}_{[\text{Denb}]} \emptyset_{[Q, \text{Denb}^*]} \end{array} \right] \right] \end{array} \right]$$

Behin perpausari galdera izaera emanda, galdera mota zehaztu behar da, dela *nz*-galdera, dela polaritatezko galdera. Ortiz de Urbinak (1995) lehenengoei eta bigarreniei [*nz*] tasuna esleitzen die; tasun hau Adgerren (2003) [Q] tasunarekin pareka liteke. Hala ere, analisi honetan Adgerren (2003: 350-351) ildotik [*nz*] tasunaz ere baliatuko naiz *nz*-galderak eta polaritatezko galderak bereizteko: lehenengoetan tasun hau duen *nz*-hitz bat azaltzen da eta bigarrenetan, ordea, ez. Euskarazko galdera partikulei begira, *-a* eta *al* bigarrenetan bakarrik erabil daitezke, hots, *nz*-hitzik gabekoetan:

(35) Nor joango da Leitzara? vs. *Nor joanen dea Leitzara? / *Nor joango al da Leitzara?

(36) Joan da Maite Leitzara? / Joan al da Maite Leitzara? / Joan dea Maite Leitzara?

Lehen esan bezala, euskaraz *nz*-hitzak ez ezik, aditz jokatu ere aurreratzen da *nz*-galderetan. Tradizionalki aldarrikatu izan da osagai fokalizatua Foku Sintagmaren espezifikatzaile gunera eta aditz jokatu Foku burura mugitzen direla, azken hau tasunak erkatzeko asmoz. Analisi honetan proposatzen dut *nz*-hitzek [*nz*] eta [fok*] tasunak dituztela eta Fok buru isilak [fok] tasuna duela. Eratorbidea honelakoa izango litzateke: *nz*-hitza ezker periferiara mugitzearekin batera, Foku Sintagma aktibatzen da eta bere espezifikatzaile gunea okupatzen du *nz*-hitzak⁵. Kokapen honetatik [fok] tasuna duten osagaiak harreman lokalean daude eta, beraz, tasunak erka ditzakete. Ikus hurrengo adibidea:

$$(37) \left[\begin{array}{c} \text{IndarS } \left[\begin{array}{c} \text{Indar} \left[\begin{array}{c} \text{FokS } \left[\begin{array}{c} \text{Fok } \emptyset_{[\text{fok}]} \right] \right] \right] \right] \left[\begin{array}{c} \text{JokS } \left[\begin{array}{c} \text{DenbS } \left[\begin{array}{c} \text{AS } \text{nor}_{[\text{nz}, \text{fok}^*]} \text{Leitzara joan} \right] \right] \right] \right] \left[\begin{array}{c} \text{Denb} \left[\begin{array}{c} \text{or.3sg.abs} \right] \left[\begin{array}{c} \text{Jok } \emptyset \right] \right] \right] \end{array} \right] \right] > \left[\begin{array}{c} \text{IndarS } \left[\begin{array}{c} \text{Indar} \left[\begin{array}{c} \text{FokS } \left[\begin{array}{c} \text{FokS } \left[\begin{array}{c} \text{AS } \text{nor}_{[\text{nz}, \text{fok}^*]} \text{Leitzara joan} \right] \right] \right] \right] \left[\begin{array}{c} \text{Fok} \left[\begin{array}{c} \text{Fok } \emptyset_{[\text{fok}]} \right] \right] \right] \left[\begin{array}{c} \text{JokS } \left[\begin{array}{c} \text{DenbS } \left[\begin{array}{c} \text{AS } \text{nor}_{[\text{nz}, \text{fok}^*]} \text{Leitzara joan} \right] \right] \right] \right] \left[\begin{array}{c} \text{Denb} \left[\begin{array}{c} \text{t}_i \right] \right] \left[\begin{array}{c} \text{Jok } \text{da}_i \right] \right] \right] \end{array} \right] \right] \end{array} \right] \end{array} \right]$$

Buru isil horren ebidentzia beste hizkuntza batzuetan topa daiteke: esaterako, somalieraz *baa* partikula fokaltzat jotzen ei da (Frascarelli eta Puglielli *apud* Cruschina 2012: 190) eta, ildo bertsuan, kitxuaz *qa* partikularen bidez topikoa markatzen ei da (Faller 2002)⁶.

⁵ Chengen (1997) ustez, mugida eta partikulak agerian dituzten hizkuntzetan mugidaren arrazoia ezin da perpaus mota markatzea; hitz horiek bat datoz oraingo analisiarekin, ezker periferiarako mugimendua [fok] tasunagatik gauzatzen baita.



⁶ Japoniera ere ezaguna da topiko markatzaile bat edukitzeagatik; hala ere, Vermeulenek (2013) argudiatzen du *wa* morfema, topikoekin batera agertzen den arren, bestelako kokaguneetan ere azal daitekeela eta, ondorioz, ez litzatekeela topiko markatzailetzat jo beharko.

Oraingo galdera da zergatik aurrerutzen den aditz multzoa, [fok] tasunak erkatuta badaude. Analisi honetan proposatzen dut Fok buruak [jok*] tasuna duela; tasun honek jokatuta dagoen aditza erakartzen du. Arregi eta Nevinsen (2012) ildotik, aditz jokatua ez da Denb buruan gauzatzen, Konp/Jok buruan baizik; aditz jokatua Jok buruan guztiz osatzen dela aldarrikatzen dut. Horrez gain, bertan [Denb*] tasuna dago eta, beraz, Denb burua Jok burura igotzen da tasunak harreman hurbilean erkatzeko asmoz, buru biek bat eginda. Bestela esanda, Jok buruan morfonologikoki gauzatuta agertzen diren morfemak, e.g. *-(e)n / -(e)la*, ez dira beregainak; aitzitik, Denb buruarekin bat egin behar dute.

- (38) a. Ama sartu eta aita irten dela esan didate.
- b. Ama sartu dela eta aita irten dela esan didate.
- c. *Ama sartu -(e)la eta aita irten dela esan didate.


Ondorioz, Jok buruak erakartzen du, buru biek bat egin dezaten. Beraz, honako eratorbidea proposatzen dut:

(39) Nora joan da?



Fokua duten polaritatezko galderei dagokienez, analisi berdintsua proposatzen dut. Fokua jasotzen duen osagaia AS/aS-tik FokS-ren espezifikatzaile gunera mugitzen da osagai berorren [fok*] tasuna Fok buruan dagoen buru isilaren [fok] tasunarekin harreman lokalean erkatzeko asmoz⁷. Bestalde, Fok buruak [jok*] tasuna du eta buru hori erakartzen du; aurretik, IndarS-k Jok buruaren [*u*perpausmota:_] tasuna balioztatzen du eta, era berean, Jok buruaren [Denb*] tasuna harreman hurbilean erkatzen da Denb burua Jok burura erakarri. Honela garatzen dut hemen azaldutako eratorbidea:


(40) LARREARA joan da?



Azkenik, fokurik gabeko galdera absolutuen aldetik, fokurik eta topikorik ez dagoenez, Konplementatzaile Sintagma ez dela artikulatzen onetsi beharko litzateke Rizziri (1997) jarraituta. Hala ere, horrek alde nabarmena markatuko luke galderen sintaxiari dagokionez, batetik, *nz*-galderetan eta fokua duten horietan ez baitago IndarS-rako mugidarik eta, bestetik, ematen baitu aditzaren mugidak perpaus mota zehazten duela, fokua duten galderetan eta *nz*-galderetan ez bezala. Alegia, aurretik aztertutako galdera motetan *nz*-hitza, fokua edota aditza FokS-ra mugitu eta bertan geratzen direla proposatu eta onartu da, Indar bururako mugidarik aldarrikatu gabe. Horrez gain, gainerako galderetan ez bezala, fokurik gabeko polaritatezko galderetan aditza lehenengo posizioan agertzen da eta, hori dela eta, aditza KonpS-ra (edo IndarS-ra) mugitzen dela aldarrikatu izan da (Ortiz de Urbina 1999b; 2008) eta mugida horrek proposizioa galderatzat markatzeko beharrezkin lotua izan da:

⁷ Menschingek (2015) eratorbide hau aldarrikatzen du sardinieraz fokua aurreratuta duten egituretarako, hots, hizkuntza horretan ere fokua den osagaia [espez, FokS] gunera igotzen da, baita aditz jokatuak Fok burura ere. Mugida hauek [fok] tasunak eragingo litzuzke (Mensching 2015).


(41) Joan da Larreara?



Horrek arazo bi azalarazten ditu: galderen gaineko analisi berean asimetria dago, alegia, *nz*-hitzak edo fokua duten galderetan aditzak ez du zertan igo IndarS-ra perpaus mota markatzeko; bestalde, polaritatezko galderetan badirudi galderak markatzeko modu bi daudela, agerikoa eta ezkutukoa, aditza Indar burura igotzen den edo, Fok lexikalizatuta duten testuinguruetan, Fok buruan geratzen den aintzat hartuta.

Gauzak horrela, fokurik gabeko polaritatezko galderetara ere Rizziren (1997) hipotesi kartografikoa zabaltzen dut, aditza FokS-n geratzen dela proposatuta. Mugida hori galderak duten fokua, i.e. galdegaiaren, beharrezkin lotuko nuke. Alegia, tipologikoki (Cruschina 2012: 190; Holmberg 2014; Siemund 2018: 177) ikusten da galdera absolutuetan edo proposizio osoa (foku zabala) edo osagai jakin bat (foku estua) galderaren fokupean egon behar dela. Euskaraz bigarren kasuan osagai jakin bat FokS-ra mugitzen da eta, horren ondorioz, aditza ere bai, fokua eta aditz jokaturia elkarren ondoan egon behar baitira. Lehenengo kasuan, ordea, galdera guztiak fokua bat behar izateak aditza FokS-ra erakartzen du eta, horrenbestez, aditza lehenengo posizioan azaltzen da, perpaus osoa galdegaia dela markatuta.

(42)



Euskarazko galderai ere eratorbide hori aplikatuz gero, honako banaketa edukiko genuke: aditza beti Fok burura igotzen da galderetan; batetik, *nz*-galderetan (= 39b) eta osagai jakin bat fokalizatuta duten galderetan (= 40b) [espez, FokS] gunean dagoen osagaiaren ondoko gunea okupatzeko, eta, bestetik, foku zabala duten galderetan (= 42) perpaus osoa fokua edo galdegaia dela markatzeko.

Analisi hori euskarara ekartzeak galdera moten eratorbideari koherentzia ematen dion arren, eragiketa horiek ez dute azaltzen zelan markatzen den proposizioa galderatzat; balizko eratorpen bat aurkeztuko dut jarraian. Adgerren (2003: 350-353) ildotik, Indar buruan [perpaus mota:] tasuna duen buru isil bat dagoelako hipotesia onartzen dut eta, itauna den heinean, [Q] tasuna hartzen du. Tasun horrez gain, Indar buruak [nz] tasun ere badauka, eta bere o-komando hurbilean [nz] tasuna bilatzen du (Adger 2003: 353)⁸. Berori topatuz gero, *nz*-galdera legez markatuta geratuko litzateke; bestela, IndarS-ren espezifikatzaile gunean tasun hori erkatuko lukeen operatzaile bat sortuko litzateke, polaritatezko galdera baita. Adgerren (2003: 350-353) analisisian ez bezala, euskarazko itaunetan *nz*-hitza ez litzateke [espez, IndarS] gunera igoko, [nz] tasuna ahula izango bailitzateke. Alabaina, esango nuke azterbide hau nekez jo daitekeela minimalistatztat eta etorkizuneko ikerketak argitu beharko digu zein eragiketak eta tasunek jokatzen duten galdera mota desberdinak sintaktikoki markatzeko rol bat, baldin eta bereizketa hori sintaxi mailan gauzatzen bada.

Gogoan eduki behar dugu zer den galdera bat: galderak dira perpaus mota interrogatiboa duten esaldiak. Galderen ezaugarria da perpausaren osagai bat falta dela. Bi egoera egon daitezke: a) sintagma baten balioa ezezaguna da eta, beraz, osatzea falta da; edo b) polaritatearen balioa falta da, hots, perpausa ezezkoa edo baiezkkoa den. Definizioz (SIL 2014), galdera bat, beraz, hizketa ekintza da, hartzaileari informazioa emanarazi nahi dion ekintza ilokutiboa, alegia. Gauzak horrela, lehenengoz perpaus mota ezartzen da. Horretarako, arestian azaldutako prozedura jarraitzen da⁹. Dena den, jakina da galderak *nz*-galderak eta polaritatezkoak izan daitezkeela, eta orain arte proposatutako

⁸ Adgerrek (2003) [nz] tasuna erabilzen du *nz*-hitzen mugida azaltzeko; alabaina, aitortzen du planteamendu teoriko honek arazoak dituela. Lehenik, Konp buruak mugida eragin dezan berorri ere [nz] tasuna esleitu behar zaio; hala ere, tasun hori hautazkoa izango litzateke zeren polaritatezko galderetan ez bailitzateke beharrezkoa izango. Hori dela eta, Adgerrek (2003) proposatzen du Konp buruak [nz] tasuna eduki beharrean, *nz*-hitzek [Q] tasuna dutela eta horrek ezker periferiarako mugimendua eragiten duela. Halarik ere, honek ere arazoak ditu *nz-in situ* galderetan eta *nz*-hitza bat baino gehiago dituzten itaunetan. Azkenik, autore horrek Konp buruak [nz] tasuna duelako ideia hobesten du eta argudiatzen du bai-ezko galderetan [nz] tasuna duen operatzaile bat KonpS-ren espezifikatzaile gunean sortzen dela, beronek Konp buruarekin tasun hori erkatuko baitu.

⁹ Coniglio eta Zegreanen (2012) ildotik, I(ndar)IL(okutiboa) eta P(erpaus)M(ota) ere bereiz litezke, PMn perpaus mota interrogatiboa ezartzeaz gain, IILn eragiletasuna (ingelesez, *directiveness*) edukiko genuke, galdera neutroa denean, baina galdera erretorikoetan bestelako balioa (esate baterako, deklaratiotasuna) agertuko litzateke. PMn, ordea, interrogatibo/galdera edo Q tasuna kokatuko nuke, perpaus mota hori baita. PM Jok buruarekin bat etortzeko, balio bera agertuko litzateke azken horretan eta, ondorioz, bi morfema ager litezke Jokn: batetik, testuinguru zuzenetan morfonologikoki gauzatu gabeko morfema eta, bestetik, zehar galderetan

eragiketek ez dituzte galdera motak zehazten. Hori aintzat hartuta, honakoa zehaztuko nuke bai polaritatezko galderak bai *nz*-galderak aztertzeko.

Nz-galderetan osagai baten balioa ez dago zehaztuta. Balio hori zabala da; *nz*-hitza bere ordeaz agertzen da, eta *nz*-hitzaren morfoloziak ezartzen du zer osagai mota izan behar den (denborazko adberbioa, absolutibodun, adlatibodun, inesibodun sintagma, besteak beste). *Nz*-hitzek izen hori jasotzen dute, batetik, *n*- eta *z*- hasiera dutelako eta, bestetik, testuinguru interrogatiboetan gehienbat agertzen direlako. Alabaina, beste testuinguru batzuetan ere ager daitezke, harridurazkoetan eta, hizkuntza askotan, erlatibozko perpausetan edota erdi-galderetan¹⁰. Hori aintzat hartuta, proposatzen dut *nz*-hitzek irakurketa interrogatiboa edukitzeko [Q] tasuna behar dutela eta Indar buruak tasun hori zehazten duela. Horretarako, Indar buruak bere o-komando hurbilean [*nz*] tasuna bilatzen du (Adger 2003: 353) eta, berori topatuz gero, *nz*-galdera legez markatuta geratzen da galdera.

Polaritatezko galdera neutroetan polaritatearen balioa ezartzeke dago; bestela esanda, polaritate sintaktikoa markatuta dago, baina semantikoa ez (Arriortua 2017), eta horixe argitzea eskatzen du hizlariak. Kitxuari begiratzuz gero, polaritatearen jokabide hori argi ikusten da. Hizkuntza horretan *-chu* atzizkia erabiltzen dute polaritatezko galderetan, eta atzizki horrekin batera *mana(n)* ezezko adberbioa erabiltzen da ezezko perpausak markatzeko (Cusihuamán 2001: 235-237).

(43) Mana-n wayqe-y-qa kan-chu
 ez-PART anaia-nire-PART izan-POL
 ‘Ez daukat anaiarik’.

(44) Lliklla-ta-chu awa-sha-nki?
 manta.AK.POL ehundu.PROG.LAG
 ‘Manta bat josten ari zara?’

Hizkuntza horretan, beraz, polaritatezko morfemen ebidentzia ematen zaigu. Euskaraz ezeztapena eta baieztapena markatzeko morfemak daude, *ez* eta *ba*-, hurrenez hurren; hala ere, kitxuaren ebidentziatik abiatuta, proposatzen dut euskarazko polaritatezko galderetan polaritatea zehaztu gabeko morfema

-(*e*)n menderagailua. Eragiketa sintaktiko horiek arestian azaldutako Indar eta Jok buruen artekoak bezalakoak lirateke.

¹⁰ Erlatibozko perpausetan euskaraz ez dira *nz*-hitzak erabiltzen; salbuespena *zein* izan liteke, historikoki hori agertzen baita horrelako testuinguruetan.

Bestalde, Suñerrek (1993) mendeko perpaus interrogatibo bi bereizten ditu: galdera-osagarriak eta erdi-galderak. Lehenengoetan indar ilokutiboa indarrean dago eta *nz*-hitzaren balioa zehazteke; bigarrenetan, aldiz, ez dago indar ilokutiborik (horregatik ezin da *ea* erabili, Ortiz de Urbinak (2008) erakutsi bezala), eta *nz*-hitzaren balioa finkatuta eta ezaguna da. Kasurako:

(i) Nor etorriko den galdetu dit.

(ii) Badakit nor etorriko den.

Izan ere, erdi-galderetan *nz*-hitza batzuetan erlatibozko perpaus baten bidez birformula daiteke:

(ii') Badakit etorriko den pertsona.

bat dagoela morfonologikoki gauzatu gabea. Horrez gain, Indar buruak bere o-komando hurbilean [pol] tasuna bilatzen du eta, zehazteke dagoenez, Q balioa ematen dio polaritateari. Horrela, galdera polaritatezkoa dela markatuta geratzen da.

Honaino galdera nagusien analisia. Hurrengo azpiatalean zehar galderari begiratuko diet, azpiatal honetan ezarritako oinarriak aintzat hartuta.

3.2.- Zehar galderak minimalismoaren ikuspegitik

Lehen esan bezala, Ortiz de Urbinak (1999b; 2008) proposatzen du mendeko polaritatezko galderetan [espez, IndarS] gunean operatzaile bat dagoela eta perpaus nagusiko aditzak berarekin tasunak erkatzen dituela. Horrelako testuinguruetan aditz jokatua ez mugitzea dakar analisi horrek¹¹.

(45) Ea haurrak Uztaritzera joan diren galdetu dute. (= 9)

Bestalde, *nz*-galderetan eta fokua duten polaritatezko galderetan, aditz jokatua aurreratzen ei da [nz] tasunak erakarrita (Ortiz de Urbina 1999b; 2008).


(46) Ea [nora]_i [joan diren]_j haurrak [nora]_i [joan diren]_j galdetu dute. (= 7)

(47) Ea [UZTARITZERA]_i [joan diren]_j haurrak [UZTARITZERA]_i [joan diren]_j galdetu dute (= 10)

Aurreko azpiatalean (§3.1.) aldarrikatutako analisia testuinguru horiei aplikatuz gero, azterketa homogeenagoa lortzen da. Hasteko, perpaus nagusiko aditzak IndarS-ren espezifikatzailean dagoen operatzaile batekin tasunak erkatzen ditu eta, horrela, Indar buruari [Q] tasuna ezartzen zaio; Indar-Jok buruen arteko harremana dela eta, Jokatutasun buruak [Q] tasuna ere jasotzen du. Horrela, galdera markatuta gelditzen da. Ondoren, lehen proposatu dudana bezala, Jok buruaren [Denb*] tasuna erkatzeko, Denb burua Jok burura igo behar da. Eratorbide hau galdera mota guztietan aplika liteke, *nz*-galderen eta fokudun galdera absolutuen kasuetan [nz/fok] tasunek eragindako mugidez gain. Eragiketa horiek soilik dituen galdera mota, beraz, fokurik gabeko zehar galdera da. Honela abiatuko nuke azken horren analisia:


¹¹ Ortiz de Urbinak (1999b; 2008) diosku polaritatezko galderetan testuinguru zuzenetan aditza aurreratzen dela baina ez zehar galderetan. Dena den, ez dago argi ea testuinguru zuzenetan ere aditza *in situ* geratzen den. Galderak elizitatezko inkesta batean ez da ondorio argirik ikusi. Etorkizunerako geratzen da ikergai honetan sakontzea.

(48) (..) Haurrak Uztaritzera joan diren galdetu (...) (= 9)




Gainerako zehar galderei dagokienez, aurreko azpiataleko (39) adibidean mota bereko galderetarako proposatutakoa aplikatzen dut orain. Alegia, *nz*-galderen kasuan, *nz*-hitza aurreratzen da berak eta Fok buruak [fok] tasuna dutelako, lehenengoaren tasuna sendoa delarik; horrez gain, Fok buruak [jok*] tasuna ere badu eta aditz jokatuaren mugida eragiten du.

(49) Nora joan diren haurrak galdetu (...) (= 7)



Bestalde, zehar galdera absolutu fokudunetan, fokua jasotzen duen osagaia FokS-ren espezifikatzaile gunera mugitzen da Fok buruaren [fok*] tasunak erakarrita; halaber, buru horrek [jok*] tasuna du, eta aditz jokatua bereganatzen du.

(50) (...) UZTARITZERA joan diren haurrak galdetu (...) (= 8)



Honaino, beraz, galderen analisi sintaktikorako proposamen berria. Ondoren, gramatika-lanetan bereizi ohi den beste galdera motari erreparatuko diot, hauta-galderei, alegia.

IV.- EXCURSUS: HAUTA-GALDERAK

Amaitzeko, artikulu honetan *nz*-galderetara eta polaritatezkoetara mugatu naiz, baina gramatiketan beste mota bat bereizten da, hauta-galderak, alegia. Euskarak hautazko juntagailu bi dauzka: *ala* eta *edo*¹². Euskaltzaindiak (2021: 1139) eta Goenagak (2009) diosku *ala* testuinguru interrogatiboetan besterik ez dela erabiltzen; *edo*, ordea, deklaratioetan eta interrogatiboetan agertzen da. Nahiz eta biak galderetan agertu, desberdin jokatzen dute: *ala*-dun osagaia fokua da, eta [Q] tasuna dauka, galdetzen baita horietako bat aukeratzea; aldiz, *edo*-dun osagaiak ez dira fokua, eta ez da lotzen dituen osagaien artean aukeratu behar. Horregatik, *ala*-dun galderak hauta-galderatzat jotzen dira eta


¹² Gaur egun euskaldun guztiak ez dituzte biak erabiltzen, eta gero eta toki handiagoa dauka *edo*-k. Hortaz, *ala*-ren kaltean, *edo*-k haren erabilerak bereganatu ditu hainbat hizkeratan.

edo-dunak, berriz, polaritatezko galderak (Meertens 2019). Ikus ditzagun pare bat adibide:


- (51) Porrusalda ala pizza bazkalduko duzu bihar gurekin? (= aurreikusten dugu bihar gurekin bazkalduko duzula, baina aukeratu zer)
- (52) Bazkalduko duzu bihar porrusalda edo pizza gurekin? (Jakin nahi dugu ea bihar gurekin bazkalduko duzun)

Gauzak horrela, *ala*-dunek foku/nz-galderen eratorbide sintaktikoa dutela aldarrikatzen dut; aldiz, proposatzen dut *edo*-dunak aditza aurreratuta duten polaritatezko galderak bezala eratortzen direla, funtsean aditza fokupean duten polaritatezko galderak direlako.

- (53) Porrusalda ala pizza bazkalduko duzu bihar gurekin?



- (54) Bazkalduko duzu bihar porrusalda edo pizza gurekin?



Hauta-galderen balizko analisia labur aurkeztuta, ondorioetara joko dut jarraian.

V.- ONDORIOAK

Atal honetan galderen azterketa homogenea proposatu dut, mota guztietan antzeko tasunek motibatua. Labur-zurrean, hurrengo ideiak nabarmenduko nituzke. Lehenengoz, argudiatu dut Indar Sintagmaren eta Jokatusun Sintagmaren arteko lotura dagoela, Indar Sintagman perpaus mota ezartzen dela eta, Jokatusun Sintagmarekin komunztatu ondoren, Jok buruan perpaus mota horri dagokion morfema azaltzen dela. Horrez gain, galderak perpaus osatugabeak direla aintzat hartuta, definitzeke dagoen aldagaiak (*nz*-k edo polaritateak) galdera mota ezartzen du, hots, *nz*-galdera edo polaritatezko galdera. Beraz, IndarS-n dagoen galdera ezaugarriak bere o-komando hurbilean [*nz*] hitzik edo zehaztu gabeko [*pol*] baden bilatzen du, galdera mota zehazteko asmoz. Perpaus mota zehaztuta, sintaktikoki hainbat mugimendu lekukotzen dira. Batetik, Foku Sintagmaren buruan euskaraz osagai isil bat dagoela proposatzen dut, [*fok*, *jok**] tasunak dituena. Sintagma hori aktibatuz gero, buru isil horrek aditz jokatu erakartzen du. Bestetik, Foku Sintagma galdegaia mugitzen da, *nz*-galderetan *nz*-hitza eta polaritatezko galderetan fokua jasotzen duen sintagma; galderaren besarkadurak perpaus osoa hartzen badu, aditz multzoa bakarrik igotzen da, A1 efektua lortuta. Azkenik, mendeko perpausetan aditzaren mugida fokua eragiten du; Foku Sintagma lexikalizatuta ez badago, aditza *in situ* agertzen da.

ERREFERENTZIAK

- Adger, D. (2007) «Three domains of finiteness: A minimalist perspective», in Nikolaeva, I. (arg.) *Finiteness: Theoretical and empirical foundations*, New York, Oxford University Press, 23-58. or.
- Albizu, P. (1992) «Where is COMP in Basque?», Madril, Instituto Universitario Ortega y Gasset [Argitaratu gabeko eskuizkribua].
- Arregi, K. + Nevins, A. (2012) *Morphotactics: Basque auxiliaries and the structure of spellout*. Dordrecht/ New York, Springer.
- Arriortua, A. (2017) *Perpaus ezeztapena euskaraz: tipologiatik hurbilketa berri baterantz*, Vitoria-Gasteiz, UPV/EHU [Master amaierako lana].
- Artiagoitia, X. (1994) «Verbal projections in Basque and minimal structure», *ASJU* 28(2), 339-504. or.
- Artiagoitia, X. (2000) *Hatsarreak eta Parametroak lantzen*, Vitoria-Gasteiz, Arabako Foru Aldundia.
- Artiagoitia, X. + Elordieta, A. (2016) «On the semantic function and selection of Basque finite complementizers», in Boye, K. & Kehayov, P. (arg.) *Complementizer semantics in European languages*, Berlin/ Boston, De Gruyter Mouton, 379-411. or.
- Cheng, L. L. S. (1997) *On the typology of wh-questions*. Cambridge, MIT [Doktorego tesia].

- Coniglio, M. + Zegrean, I. (2012) «Splitting up Force, evidence from discourse particles», in Aelbrecht, L. (arg.) *Main clause phenomena: New horizons*, Amsterdam/Philadelphia, John Benjamins, 229-256. or..
- Cruschina, S. 2012. *Discourse-related features and functional projections*, Oxford, Oxford University Press. <https://dx.doi.org/10.1093/acprof:oso/9780199759613.001.0001>
- Cusihuamán, A. (2001) *Gramática Quechua Cuzco-Collao*, Cuzco, CBC.
- de Rijk, R. (1969) «Is Basque an SOV language? », *FLV* 1(3), 319-352. or..
- Duguine, M. + Irurtzun, A. (2014) «From obligatory *wh*-movement to optional *wh-in situ* in Labourdin Basque», *Language* 90(1), e1-e30. or.. <https://doi.org/10.18148/hs/2014.v0i0.11>
- Elordieta, A. (2001) *Verb movement and constituent permutation in Basque*. Utrecht, LOT [Leiden Unibersitateko Doktorego tesia].
- Elordieta, A. + Haddican, B. (2018) «Truncation feeds intervention», *Natural Language & Linguistic Theory* 36(2), 403-443. or..
- Euskaltzaindia. (2021) *Euskararen gramatika*, Bilbo, Euskaltzaindia.
- Faller, M. (2002) *Semantics and pragmatics of evidentials in Cuzco Quechua*, Palo Alto, Stanford University [Doktorego tesia].
- Goenaga, P. (2009) «Hauta-galderez», *ASJU* 43(1-2), 381-403. or..
- Holmberg, A. (2014) «The syntax of the Finnish question particle», in Svenonius, P. (arg.) *Functional Structure from Top to Toe*, New York, Oxford University Press, 266-289. or..
- Hualde, J. I. + Ortiz de Urbina, J. (2003) *A grammar of Basque*, Berlin/ Boston, de Gruyter Mouton.
- Irurtzun, A. (2007) *The grammar of focus at the interfaces*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU [Doktorego tesia].
- Kaiser, G. A. + Scholze, L. (2009) «Verbstellung im Sprachkontakt-das Obersorbische und Bündnerromanische im Kontakt mit dem Deutschen», in Scholze, L. & Wiemer, B. (arg.) *Von Zuständen, Dynamik und Veränderung bei Pygmäen und Giganten. Festschrift für Walter Brey zu seinem 60. Geburtstag*, Bochum, Universitätsverlag Dr. N. Brockmeyer, 305-330. or..
- Kuwabara, K. (2013) «Peripheral effects in Japanese questions and the fine structure of CP», *Lingua* 126, 92-119. or..
- Laka, I + Uriagereka, J. (1987) «Barriers for Basque and vice-versa», in McDonough, J. + Phunkett, B. (arg.) *Proceedings of NELS*, Amherst, GLSA, 394-408. or..
- Meertens, E. (2019) «How prosody disambiguates between alternative and polar questions», in Schlöder, J., McHugh, D. + Roelofsen, F. (arg.) *Proceedings*

- of the 22nd Amsterdam Colloquium*, Amsterdam, Amsterdameko unibertsitatea, 299-308. or..
- Mensching, G. (2015) «New Insights on the Question Particle *a* in Sardinian», *Isogloss, Special Issue*, 7-40. or..
- Monforte, S. (2015) *Galdera partikulak euskaraz*, Vitoria-Gasteiz, UPV/EHU [Master amaierako lana].
- Monforte, S. (2022) «Merging new and old methodologies in fieldwork», *Linguistic Minorities in Europe Online*. <https://doi.org/10.1515/LME.16282095>
- Morin, A. (2013) «The syntax of Gascon clause-type particles», *Linguistica Atlantica* 29, 137-155. or..
- Ortiz de Urbina, J. (1989) *Parameters in the grammar of Basque: A GB approach to Basque syntax*, Dordrecht, Foris.
- Ortiz de Urbina, J. (1992) «Inversión y movimiento verbal en euskara», *Revista española de lingüística* 22(1), 107-132. or..
- Ortiz de Urbina, J. (1994) «Verb-initial patterns in Basque and Breton», *Lingua* 94(2-3), 125-153. or..
- Ortiz de Urbina, J. (1995) «Residual verb second and verb first in Basque», in Kiss, K. (arg.) *Discourse configurational languages*, New York/ Oxford, Oxford University Press, 99-121. or..
- Ortiz de Urbina, J. (1999a) «Focus in Basque. In Rebuschi, G. + Tuller, L. (arg.) *The grammar of focus*, Amsterdam/ Philadelphia, John Benjamins Publishing Company, 311-334. or..
- Ortiz de Urbina, J. (1999b) «Focus Phrases, Force Phrases and Left Heads in Basque», in Franco, J., Landa, A. + Martín, J. (arg.) *Grammatical Analyses in Basque and Romance Linguistics Papers in honor of Mario Saltarelli*, Amsterdam/ Philadelphia, John Benjamins Publishing Company, 179-194. or..
- Ortiz de Urbina, J. (2008) «Indar Sintagmak, Foku Sintagmak eta ezkeraldeko buruak euskaraz», in Arteatx, I., Artiagoitia, X. + Elordieta, A. (arg.) *Antisimetriaren hipotesia vs. buru parametroa: euskararen oinarritzko hurrenkera ezbaian*, Bilbo, UPV/EHU, 51-67. or..
- Pastor, L. (2019) *Estrategias facilitadoras del procesamiento en lenguas OV-VO Estudio comparativo de corpus*, Vitoria-Gasteiz, UPV/EHU [Doktorego tesia].
- Poletto, C. (2000) *The higher functional field. Evidence from Northern Italian dialects*, New York/ Oxford, Oxford University Press.
- Richards, N. (2016) *Contiguity theory*, Cambridge, MIT Press.

- Rizzi, L. (1997) «The fine structure of the left periphery», in Haegeman, L. (arg.) *Elements of grammar: Handbook of generative syntax*, Dordrecht, Springer, 281-337. or..
- Rizzi, L. (2004) «Locality and left periphery», in Belletti, A. (arg.) *Structures and beyond: The cartography of syntactic structures*, New York, Oxford University Press, 223-251. or..
- Roberts, I. (2004) «The C-system in Brythonic Celtic languages, V2, and the EPP», in Rizzi, L. (arg.) *The Structure of CP and IP: The Cartography of Syntactic Structures, Volume 2*, New York, Oxford University Press, 297-328. or..
- Siemund, P. (2018) *Speech Acts and Clause Types: English in a Cross-linguistic Context*, New York, Oxford University Press.
- SIL. (2014) *Glossary of Linguistic Terms*. <https://glossary.sil.org/>
- Suñer, M. (1993) «About indirect questions and semi-questions», *Linguistics and Philosophy* 16(1), 45-77. or.. <https://dx.doi.org/10.1007/BF00984722>
- Vermeulen, R. (2013) «On the position of topics in Japanese», *The Linguistic Review* 30(1), 117-159. or..
- Villasante, L. (1980) *Sintaxis de la oración simple*, Oñati, Editorial Franciscanas Aránzazu.